



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996ko urriaren 18a

54 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio-ko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onestitako irizpena (2. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege proposamena, jarduera ekonomikoetako industrialdeak herrietan sustatzeko dirulaguntzei buruzkoa, «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak aurkeztua (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Tuterako saihezbidea egiteko N-232 errepidea destolesteari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).

—Iparreko Autobian antzemandako arazoei buruzko buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).

—Nafarroan dauden kontrolik gabeko zabortegei eta hondakindegiei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).

—Nafarroako Gobernuakideen opor sariei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).

—Itoitzeko urtegira bidaltzeko den Goardia Zibileko destakamenduaren gainean Nafarroako Gobernuak eskura duen informazioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Nafarroako Gobernuak 1996ko ekainean, uztailean eta abuztuan Nafarroako Parlamentura igorritako Foru Agindu eta Ebazpenak, haien bidez gauzatzutako aurrekontu aldaketak eta Kontuen Ganbarak horri buruz emandako txostena (18. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi karguen bateraezintasunei buruzkoa

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikulua ezarritakoa betez, Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Lege proiektuaren gainean eman duen Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proiektu hori 1996ko maiatzaren 17ko 28 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, emendakin hauek defendatzen ahalko dira:

– 2 zk.ko “in voce” emendakina, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– 15, 23, 37 eta 42 zenbakikoak, «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» Parlamentari Taldearenak.

Emendakin horiek 1996ko ekainaren 20ko 39 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Aipatzen den “in voce” emendakina honako hau da:

2 zk.ko “in voce” emendakina, 6. artikuluko b) atalean aldaketa bat egiteari buruzkoa.

“Lanbideko” esamoldearen ordez “unibertsitate arloko” esamoldea jartzea.

Zioak: “Lanbideko” arloa “irakaskuntzaren arloa” murriztea.

Iruñean, 1996ko urriaren 14a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi karguen bateraezintasunei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-teari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikulua dioenez, foru araubidea dela eta, Nafarroak du eskumen osoa, beste gai batzuen artean, Foru Erakundearen osaketa, eskurantzak, antolakuntza, jardunbidea eta araubide juridikoa arautzeko, baita Foru Diputazioaren, haren Administrazioaren eta haren menpeko ente publikoen araubide juridikoa ere.

Eskumen horren arabera, Nafarroako funtzionarioen gaineko araudiak ezartzen du funtzionarioen bateraezintasunen araubidea.

Hala ere, oso eskas araututa dago goi karguen bateraezintasunen araubidea apirilaren 11ko 13/1983 Foru Legean, Gobernuko Lehendakaria eta kontseilariak eta zuzendari nagusiak soilik ukitzen baititu.

Beraz, sektore publikoaren funtzionamendu zorrotz eta objektiboa bermatzeko arau bat ezarri beharra dago zorrotzasun eta objektibotasun hori bermatzearren, Foru Legearen maila izan eta Nafarroako Parlamentuko erabateko gehiengoak onetsi behar duena, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikulua babesean, Gobernuko Lehendakariaren eta kontseilarien estatutuan eragina izanen baitu.

Foru Legeak egitura soila du eta goi karguen erabateko dedikazioa eta eskklusiboa aldarrikatzen du haien karguetan, beste jarduera publiko batzuetan, bateragarriak nahitaez, edo pribatuetan independentziarik galdu gabe ari daitezzen galarazi gabe.

Horretarako goi karguaren kontzeptua zehaztu da ukitutako erakunde eta entitateen egituraren arabera, eta aitortzen edukia ezarri da, bai jarduerena bai ondasun eta interesena, beste administrazio batzuetarako agindutakoaren parekoa, ahalik eta argitasun handiena ematearren ukitutakoei eta erakunde fiskalizatzaileei.

Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioiko goi karguen jarduera eta interesen Erregistroa sortu da eta kudeatuko duen unitate organikoa izendatu, inpartzialtasuna eta independentzia bermatzeko.

Azkenik, zehapen ahalmenari buruzko kapituluaren arau batzuk biltzen dira, legea hautsiz gero, ahalik eta zigor handiena eman eta prozedurak ebazteko organo eskudunen independentzia bermatzen dutenak.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

Foru Lege honek Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko gainerako goi karguen jarduera bateraezintasun erregimena eta interesen kontrola arautzen ditu, baita hari lotuta edo haren menpe diren zuzenbide publikoko entitateetakoena ere.

2. artikulua. Goi karguaren definizioa.

Foru Lege honetarako, goi karguak dira:

a) Nafarroako Gobernuko edo Foru Diputazioiko Lehendakaria eta kontseilariak edo foru diputatuak.

b) Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren eta kontseilariaren kabineteetako kideak, administrariak izan ezik.

c) Foru Komunitatearen Administrazioiko zuzendari nagusiak eta maila organiko bereko lanpostuetako titularrak.

d) Izendapen libreko lanpostuetako titularrak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko erakunde autonomoetan, nahitaez funtzionarioek bete beharrekoak izan ezik.

e) Foru Komunitateko sozietate publikoetako zuzendari nagusiak eta zuzendari kudeatzaileak.

f) "Radio Televisión Navarra" Ente Publikoko zuzendari nagusia.

g) Behin-behineko beste edozein langile, foru araudiaren arabera.

3. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Foru Lege honen aplikazio eremuaren barreneko goi karguek erabateko dedikazioan beteko dituzte beren eginkizunak eta ezin izanen dira batera aritu, ezta orderko edo ahaldun baten bidez ere, beste edozein lanpostu, kargu, ordezkaritza, lanbide edo jardueratan, publiko zein pribatu izan, beraien gain edo besteren kontura, eta, halaber, ez dute beste lansaririk jasoko administrazio publikoetako edo horiei lotutako edo menpeko entitateetako aurrekontuen kargura, ezta jarduera pribatu batetik zuzenean edo zeharka datorren beste saririk ere.

Aurreko lerroaldean xedatutakoak ez ditu 5 eta 6. artikuluetan adierazitako salbuespenak galarazten.

2. Foru Lege honen aplikazio esparruko karguak betetzen dituzten pertsonak ez dute, ez beraiek edo ezkontidearekin edo haien menpeko seme-alabekin eta tutoretzapeko pertsonekin ere, ehuneko hamarra edo gehiago jotzen duen partaidetzaren titularitaterik izanen foru, toki edo Estatu-ko sektore publikoarekin edozein eratako hitzarmen, konbenio edo kontraturik duten enpresetan.

Foru Lege honetako 2. artikuluan aipatu lanpostuetako bat betetzeko izendatzen denak, idazati honen aurreko lerroaldean adierazitako moduko partaidetzarik badu, bi hilabeteko epean utzi beharko du, izendatu eta biharamunetik aitzina. Karguan ari dela, oinordetza bidez eskuratzen badu partaidetza, eskuratu eta lau hilabeteko epean utzi beharko du.

Partaidetza hori eta ondoko transmisioa ere Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioiko goi karguen jarduera eta interesen Erregistroan deklaratu dira, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.

3. Goi karguren bat dutenak behartuta daude gai batean aritzeaz inhibitzerara, baldin eta gai horretan jardun badute edo gai hori enpresa edo sozietateren bati interesatzen baldin bazaio, eta goi kargua dutenek edo haren ezkontideak edo laugarren gradu zibil arteko senitartekoren batek, aipatu enpresa edo sozietatearen zuzendaritza, aholkularitza edo administrazioan parte hartu badute. Inhibizioa idatziz egingo da, behar bezala adieraz eta agertaraz dadin, eta goi karguaren mailaz goragoko hurbilenari edo izendatu zuen organoari jakinaraziko zaio.

4. Kargua utzi eta ondoko bi urteetan goi karguek ezin izanen dute jarduera pribatuetan aritu, karguan zeudenean haiekin zerikusia duten espedienteetan ebazpenik eman bazuten, ezta laguntza teknikorako, zerbitzuko edo antzeko kontraturik egin ere administrazio publikoekin.

Foru Lege honen aplikazio esparruko goi karguren batean aritu direnek, aurreko lerroaldean adierazitako epearen barrenean, zein jardueratan aritzeko gogoia duten haren gaineko berri eman beharko diote Foru Lege honetan ezarritako jarduera eta interesen Erregistroari. Erregelamendu bidez finkatuko dira berri emate horren nondik-norainokoa eta edukia.

II. KAPITULUA Jardueren araubidea

4. artikulua. Kargu publikoaren ondoriozko jardueretik bateragarritasuna.

Goi karguaren eginkizunak betetzea bateragarria da jarduera hauekin kargu publiko gisa:

a) Instituzio izaeraz dagozkion beste kargu batzuk betetzea edo karguagatik izendatua izan bada.

b) Administrazio publikoetako organo kolegiatuetako buru, kide edo idazkari izatea, kargua dela eta eginkizun horiek bete behar dituzenean.

c) Kargu edo eginkizunak betetzea herrialdez gaindiko organizazio eta biltzarretan.

d) Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari izatea erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta sozietate pribatuen zuzendaritza organoetan edo administrazio kontseiluetan, bere kargua dela eta edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak parte hartzen duen entitateetan beroriek izendaturik.

e) Foru Parlamentarioaren kargua betetzea Nafarroako Parlamenturako Hauteskuendeei buruzko Foru Legeak ezarritako kasuetan.

5. artikulua. Sari ekonomiko bateragarriak kargu publiko gisa.

1. Kargu publiko gisa goi karguan aritzearekin bateragarri diren jarduerak galarazi gabe, ez du karguaren lansariaz aparte beste sari ekonomikorik jasoko, honako hauek salbu:

a) Egin behar dituen bidaia, egonaldi eta lekualdatzeen gastuen kalteordaina, indarra duen araudiari jarraituz.

b) Bertaratzeagatik, araudia aplikagarrian ezarritako dauden zenbatekoak.

Sozietate publikoetako administrazio kontseiluetan ez da saririk jasoko bi baino kontseilu gehiagotan parte hartzeagatik.

c) Zein Administrazio Publikotatik datorren haren legeriak onartzen dizkion ordainsari batera-

garriak, goi karguak eszedentzia berezian edo zerbitzu berezietan diren funtzionarioak direnean.

2. Edozein kontzepturen bidez jaso behar ez diren zenbatekoak sortuz gero, aurreko zenbakian adierazitakoari jarraituz, dagokien kontuan sartuko ditu zuzenean ordaintzen dituen erakundeak, eta hori ezinezkoa bada, hartzaileak berak, jaso eta hamabost eguneko epean.

6. artikulua. Jarduera pribatu bateragarriak

Goi kargu batean aritzea bateragarria da jarduera pribatu hauekin, baldin eta horietan aritzeagatik goi karguaren inpartzialtasuna edo independentzia galarazten ez badira eginkizuna betetzerakoan:

a) Ondare pertsonala edo familiara administrazte hutsa.

b) Literatura, arte, zientzia edo teknika arloko produkzio edo sorkuntza lana eta horren ondoriozko argitalpenak, baita hizlari gisa biltzar, mintegi, lan jardunaldi, hitzaldi edo lanbideko ikastaroetan tarteka parte hartzea ere, enplegu harreman edo zerbitzu emate baten ondorio ez diren bitartean edo bere eginbeharrak betetzea galarazten ez badute.

c) Irabazi asmorik gabeko kultur edo ongintza-entitateetan parte hartzea, inongo ordainsari edo irabazirik jaso gabe.

III. KAPITULUA Kudeaketa, zaintza eta kontrola

7. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioako goi karguen jarduera eta interesen Erregistroa.

1. Foru Lege honetan xedatutakoa bete dadin sortu da Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioako goi karguen jarduera eta interesen Erregistroa.

2. Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioako goi karguen jarduera eta interesen Erregistroa publikoa da, eta haren datuetan sartzeko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 37.6 artikulua araberan, Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatua arautzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoan, Foru Lege honetan eta garatuko duten xedapenetan ezarritakoari jarraituko zaio.

8. artikulua. Kudeaketa organoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Lehendakaritza eta Barne Departamentuko

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak kudeatuko du goi karguen jarduera eta interesen Erregistroa. Organo horrek independentzia osoa izanen du bere gaineko organoetatik eta beste edozeinetatik Erregistroa zaindu eta kudeatzeko.

2. Beren eginkizunak direla eta, Erregistroko datuetan sartzen diren langileek zainduko dute hura, eta behartuta egonen dira datuak isilpean gordetzera, baita beren eginkizunei utzi eta gero ere.

3. Aurreko zenbakian xedatutakoa axolagabe hartu edo hautsiz gero, hutsegite oso larria izanen da eta arau administratibo aplikagarrien bidez zehatuko da, ekar ditzakeen erantzukizun penalak galarazi gabe.

9. artikulua. Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioiko goi karguen jarduera eta interesen Erregistroko datuetan sartzea.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioiko goi karguen jarduera eta interesen Erregistroko datuetan sartzerik izanen dute:

a) Nafarroako Parlamentuak, bere Erregelamenduak ezarriko duenari jarraituz, eta Kontuen Ganbarak, bere Foru Lege arau-emaeleak ezarriko duenari jarraituz.

b) Organo judizialek, Erregistroan diren datuak ezagutzea beharrezkoa denean prozesuak instruitu edo ebazteko, auzibideen gaineko legeetan xedatutakoari jarraituz.

c) Ministerio Fiskalak, ikerketa lanean dabiltzanean bere eginkizunak betetzen, Erregistroko datuak ezagutzera behartuta dagoenean.

2. Datuen eskaera idatziz egiten zaio Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiari, argi azalduz zein den goi kargua, zein datu eskatzen diren eta eskaeraren arrazoia.

Berehala igorriko dira datuak, haien segurtasuna bermatuz.

10. artikulua. Informazioa Nafarroako Parlamentuari.

Foru Lege honetan aurreikusitako bateraezintasun araubidearen kontrola gardena izan dadin, eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak dituen eskumenak baztertu gabe, Nafarroako Gobernuak, sei hilabetetik behin, haren bitartez igorriko du informazioa Nafarroako Parlamentura goi karguek aitortzea egiteko obligazioa nola bete duten eta Foru Lege honen aurka egin diren arau-haustek eta ezarri diren zehapenak ere adieraziz.

IV. KAPITULUA Goi karguen obligazioak

11. artikulua. Jardueren gaineko aitortzea.

1. Goi karguak behartuta daude aitortzera beraiek egindako jarduerak, nahiz ordezkero edo ahaldu bitartez egindakoak, baita, 3. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, karguak utzitakoan egiteko gogoia dituztenak ere, Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioiko goi karguen jarduera eta interesen Erregistroan, Foru Lege honen 7. artikuluan aipatu bezala, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

2. Aurreko zenbakian aipatu aitortzea goi kargua hartu edo utzi eta ondoko bi hilabeteko epean egiten da, inongo luzapenik gabe, baita interesatuak Foru Lege honek araututako jardueraren batean hasten den aldiro ere.

3. Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak aitortzea aztertu eta, akats formalik atzeman ez gero, zuzendu dezan eskatuko dio interesatuari.

12. artikulua. Ondasun eta eskubideen aitortzea.

1. Goi kargu direnak behartuta daude haien ondasun, eskubide eta obligazio guztiak hartzen dituen ondarearen gaineko aitortzea egitera Erregistroan, erregelamendu bidez ezarriko den moduan. Haien ezkontideek ere egin beharko dute aitortze hori, goi karguak aurkezturik.

Ondarearen gaineko aitortzean gutxienez honako hauek sartuko dira:

a) Dituzten ondareko ondasun, eskubide eta obligazioak.

b) Finantzako balore edo aktibo negoziagarriak.

c) Sozietateetako partaidetzak.

d) Zein sozietateetan dituzten interesak, haien xede soziala, edozein motatutakoak direla ere.

e) Partaidetza izateagatik c) atalaren arabera aitortzean sartu beharreko sozietateak, xede sozialak adieraziz.

2. Artikulu honen lehen idatzian aipatu aitortzea goi kargua hartu edo utzi eta ondoko bi hilabeteko epean egiten da, luzapenik gabe, baita urtero ere, ekainean.

3. Hasierako aitortzei eta urtero egiten direnei azken zerga aitortzearen kopia erantsiko zaie, aitortzaileak Zerga Administrazioan aurkeztu behar izan duen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena eta Ondarearen gaineko Zerga Bereziarena, alegia. Zerga horiei buruzko

ezkontidearen aitortpena ere aurkeztu beharko du. Aitortpen horiek Erregistroan gordailatuko dira informazio osagarri gisa eta, eskuratzeko, arau berariazko jarraituko zaie.

4. Goi karguen jarduera eta interesen Erregistroak jasoko ditu aitortpenak eta kopiak eta, akats formalik atzemanaz gero, zuzen dezan eskatuko dio interesatuari.

12. bis artikulua. Balore eta aktibo finantzieroen kontrola eta kudeaketa.

1. Foru Lege honen aplikazio esparruko pertsonak baldin badute kontrol-, ikuskapen- zein arautze-esparru merkatu antolatuan negoziagarri diren baloreak edo bestelako aktibo finantzieroak jaulkitzen dituzten merkataritza-sozietateen gainean, eta pertsona horiek, edo legez banaturik ez dauden haien ezkontideek, edo emantzipatu gabeko adin txikiko seme-alabek, balore edo aktiboen titularrak baldin badira, Balore Merkatuen Batzorde Nazionalen erregistraturiko erakunde finantziero bat kontratatu beharko dute aipatu balore edo aktiboen kudeaketa eta administratuzko. Kudeatzeko aginduak karguan dirauen bitartean jarraituko du, eta baita kargua utzi eta ondorengo bi urteetan ere.

Xede horretarako kontratatzen den entitateak eramango du aurrera administrazioa, kontratuan ezartzen diren arrisku eta errentagarritasun jarraitu orokorre lotuko zaielarik, eta ezin izango die interesatuei inbertsiorako argibiderik eskatu, ezta inbertsiorako argitasunik jaso ere haiengandik. Ezin izango diote, ezta ere, bere inbertsioak nola osatzen diren azaldu, ez badira inbertsio kolektiboko erakundeak, edo eta, justifikaturiko arrazoiak medio, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baimena ematen ez badu.

Interesatuen erantzukizunaren kaltetan gabe, entitateak aipatu betebeharrak ez betetzea arau-hauste oso larritzat joko da, entitate finantzieroa den aldetik aplikagarria zaion zehapen erregimenaren ikuspuntutik.

2. Interesatuek honako hauei emango dizkiete izenpeturiko kontratuen kopiak: Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari eta Gobernuari Goi Karguen Jardueren Erregistroari, idazpena egin dezan, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari.

V. KAPITULUA Zehapen ahalmena

13. artikulua. Arau-hausteak.

1. Foru Lege honetarako, arau-hauste oso larriak dira:

a) 3. artikuluan aipatzen diren bateraezintasun arauak ez betetzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari kalte nabaria egin bazaio edo norberaren ondarean edo hirugarren pertsonen onura gertatu bada.

b) Foru Lege honetan ezarritakoaren arabera aurkeztu behar diren datu eta dokumentuen faltasuna.

2. Arau-hauste larriak dira:

a) 3. artikuluan aipatu bateraezintasun arauak ez betetzea.

b) Foru Lege honetan ezarritakoaren arabera aurkeztu behar diren datu eta agiriak ez aurkeztea.

c) Erregistroan jarduerak eta ondareko ondasunak ez aitortzea, hartarako ohartarazi ondoren.

d) Bi arau-hauste arin egitea urtebetean.

3. Arau-hauste arina da:

Jarduerak edo/eta ondareko ondasunak ez aitortzea Erregistroan, ezarritako epeen barruan, datuak zuzentzeko eskatu eta aitortzen direnean.

14. artikulua. Zehapenak.

1. Arau-hauste oso larriak eta larriak zehatzeko Foru Lege hau bete ez izana deklaratu da. Oso larrietan, deklarazio hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

2. Hutsegite arinak agirika eginez zehatuko dira Foru Lege hau ez betetzeagatik.

3. Foru Lege honetan xedatutakoak ez ditu galarazten behar diren gainerako erantzukizunak. Horretarako, beste erantzukizun batzuetarako aztarnak agertzen direnean, Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoari agindua emanen zaio behar diren ekintzak aurrera eraman ditzan.

Arau-hausteak delitu izan badaitezke, Administrazioak Ministerio Fiskalari igorriko dio erru leku-kogoa eta prozeduran segitzeari utziko dio harik eta agintaritza judizialak zigor auzibidea amaituko duen ebazpena eman arte.

15. artikulua. Neurri osagarriak.

1. Edozein direla ere ezartzen diren zehapenak, arau-hausleek itzuli egin beharko dituzte bidegabe hartutako zenbatekoak, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

2. Nafarroako Gobernuari Lehendakaria salbu, organo eskudunak kenduko ditu kargutik arau-hauste oso larria egiteagatik zehatuta izan direnak, zehapena argitaratu eta hilabeteko epean.

3. Arau-hauste larriagatik zehatz gero, ebazpenean zehaztu ahalko da bidezkoa den arauhauslea goi kargutik kentzea ala ez.

4. Artikulu honen 2 eta 3. zenbakien arabera kargutik kendutakoak ezin izanen dira goi kargu bat hartzeko izendatu hirutik hamar urte iragan arte, arau-haustea oso larritzat hartzen bada, edo hiru urte arte, larritzat hartuz gero.

Neurri hori graduatzeko, interes publikoari egindako kaltea, jokaerak hiritarrengan sortzen duen eragina eta jarduera bateraezinetan aritzeko dirua bidegabe hartu den edo ez baloratuko da.

16. artikulua. Zehapen prozeduraren aurreko jarduketak.

1. Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, edozein zehapen espediente hasi aurretik, jarduketa erreserbatuak egin ahalko ditu espedienteari ekiteko inguruabarrik ba ote den zehaztearren.

Jarduketen hasiera jakinaraziko zaio interesatuari.

2. Organo horrek Foru Lege hau ez betetzeagatik egin daitezkeen salaketen berri izanen du.

3. Fitxategi, agiritegi edo erregistro publikoek eta, bereziki, zerga administraziokoek eta Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaile eta zerbitzu amankomunek informazioa, datuak eta laguntza emanen dituzte, hala eskatzen zaienean, Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatu arautzen duen Lege Organikoan ezarritako moduan edo behar adinako pribatutasun eta konfidentzialtasunaz, datu informatikoak ez direnean.

4. Informazio erreserbatua amaiturik, artikulu honen 1. zenbakian adierazitako organoak 18.1 artikuluan aipatu organoei igorriko die egindako jarduketen txostena.

17. artikulua. Zehapen prozedura.

Zehapen prozedura Foru Dekretuaren bidez ezarriko da, indarreko lege-hatsapenekin bat etorritik eta Foru Lege honek ezartzen dituen xedapenen arabera.

18. artikulua. Zehapen prozedurako organo eskudunak.

1. Nafarroako Gobernua izanen da zehapen prozedura irekitzeko organo eskuduna, Lehendakari eta Barne Kontseilariak proposaturik, ukitutako goi kargua gobernukide bat denean. Ukitutako goi kargua Lehendakari eta Barne Kontseilaria bada, apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legeko 46. artikuluan ezarritako ordenan hurrengo den kontseilariak egingen du proposamena.

Gainerako goi karguen kasuan, Lehendakari eta Barne Kontseilariak irekiko du prozedura, non ez den goi kargua kontseilari horren menpekoa, orduan hurrengo kontseilaria izanen baita organo eskuduna, apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legeko 46. artikuluan ezarritako ordenaren arabera.

2. Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak instruituko ditu espedienteak.

3. Zehapen espedienteen ebazpena artikulu honen 1. zenbakian adierazitako organoei beraiei dagokie.

19. artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.

Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko IX. tituluan ezarritakoa da Foru Lege honetan aurreikusitako arauhauste eta zehapenak preskribitzeko araubidea.

Xedapen Gehigarriak

Lehenbizikoa. Bateraezintasunen iraupena.

Foru Lege honetako aginduak aplikatu egingen dira, zenbait kargutarako, haien eginkizunen berezitasuna dela eta, ezarritako bateraezintasun edo obligazioek iraun dezaten galarazi gabe.

Bigarrena. Sozietate publikoen obligazioak.

Sozietate publikoek Erregistroa kudeatzen duen organoari jakinaraziko diote zein lagun hautatu eta izendatzen dituzten haien zuzendaritza organoetarako, Foru Lege honetako 2. artikulua ukitzen baditu, baita Foru Lege honetako 5.1 artikuluan adierazitako kontzeptuengatik esleitutako sari ekonomikoak ere.

Xedapen Iragankorra

Foru Lege honetako 2. artikuluan adierazitakoaren arabera gaur egun goi kargu bat dutenek, jarduera eta ondasun eta eskubideei buruzko aitortpena aurkeztu beharko dute, 11 eta 12. artikuluetan adierazitako moduan, Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioako goi karguen jarduera eta interesen Erregistroaren funtzionamendua arautzen duen Foru Dekretuak indarra hartu eta bi hilabeteko epean.

Xedapen Indargabetzailea

Indarrak gabe geratzen da 27. artikulua, Foru Komunitateko Gobernua eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legean, baita maila bereko edo txikiagoko beste edozein

foru arau ere, Foru Lege honetan xedatutakoaren aurka badago.

Azken Xedapenak

Lehenbizikoa. Nafarroako Gobernuak bi hilabeteko epean garatuko ditu Foru Lege honen 8. eta 17. artikuluetan xedatutako edukia eta nondik-norakoa eta Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioako goi karguen jarduera eta interesen Erregistroaren funtzionamen-

durako Erregelamenduak onetsiko ditu, baita goi karguen jarduera eta interesen aitortzea egiteko ereduak ere. Orobat, zehapen prozedura.

Bigarrena. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatzeko behar diren arau guztiak eman ditzan.

Hirugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B Saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, jarduera ekonomikoetako industrialdeak herrietan sustatzeko dirulaguntzei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko urriaren 14an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak hurrengo Foru Lege proposamena aurkeztu du: jarduera ekonomikoetako industrialdeak herrietan sustatzeko dirulaguntzei buruzkoa.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Hurrengo Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea: jarduera ekonomikoetako industrialdeak herrietan sustatzeko dirulaguntzei buruzkoa.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.”

Iruñean, 1996ko urriaren 15a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, jarduera ekonomikoetako industrialdeak herrietan sustatzeko dirulaguntzei buruzkoa

ZIOEN ADIERAZPENA

Nafarroako Parlamentuak industri politikarako eta inbertsioa eta enplegua sustatzeko koiuntura-neurriari buruzko Araua eman zuenetik, 1982ko ekainean hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitateak lan eskerga egin du industrietarako lurra sustatzen Nafarroako zenbait alderditan, eta horren barrenean ere sartzen da Udal eta Kontzejuei emandako laguntza tokian tokiko udalerrietan

industrietarako lurra sor ditzaten, horretarako korriturik gabeko aurrerakinak emanaz.

Nafarroako Gobernuak zuzenean sustatutako industrialdeak orain arte izan dira eskualdeko izaerakoak, eta horregatik udalerrri izaerako industrialdeak sustatu ziren osagarri gisa, arestiko Arauko 14. artikuluan Udal eta Kontzejuen ekimenak bultzatzeko dirulaguntzak hasiera batez ezarrita. Laguntza horien zenbatekoak Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean aldizka aldatu izan dira.

Azkenik, ikusirik gero eta eskari haundiago bati oraingo baliabide publikoekin behar bezala ezin erantzun zaiola eta proiektu zenbaiten bideragarritasun ekonomikoa ezin bermatu zela, 1993ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 30eko 9/1993 Foru Legearen bidez ezarri zen, 35.5 artikuluan hain zuzen ere, gastuetarako konpromezu gehiago ezin hartuko zirela industrietarako udal lurzorua sustatzeko laguntzen planeko industrietarako lurzorua sustatzeko Proiektuaren kargura, industri politikarako Inbertsioa eta Enplegua sustatzeko koiuntura-neurriari buruzko Arauko 14. artikuluan ezarri eta arautzen baitira. Halaber, Foru Lege horrek agindua eman zuen deialdi bat egiteko, alegia, Toki Entitate interesatuek eskabideak aurkez zitzaten beste udal ekimeneko industri lurzorua sustatzeko Jarduketa Plan baterako, eta horiek ikusita, Nafarroako Gobernuak jarduketan Plan Urteanitzan gauzatu eta Parlamentuan aurkez dezan.

1993ko uztailaren 26ko Erabakiaren bidez deialdia egin zen eta haren ondorioz bidezko da beste arautegi bat ezartzea toki entitateek industrietarako lurzorua sortzeko jaso ditzaketan dirulaguntza publikoak arautzeko, gaur egungo inguruar bar eta beharrei egokitzeko helburuz.

Orain egiten den berrikuspenak, alde batetik, hobeki zehaztuko du udaletako zein ekintza lagundu behar diren, eta bestetik finkatu egiten du zein diren “herri mailako jarduera ekonomikoak jartzeko industrialdeak”, hau da, berrikuspen

honek gainditu egiten du orain arteko irizpide murriztailea zeinetan industri erabileretarako bakarrik onartzen baitzen. Horrela bada, industrialde horiek mesedegarri dirateke hiriguneetako industri karga arintzeko, izan ere zenbait jarduera desegokiro kokatuak izateagatik nahiz instalazioak haunditu nahi dituztelako, eraman eginen dira industrialdeetara. Halaber, industrialde horietan kokatu daitezke herri mailako beharrei ongi egokitzen zaizkien jarduerak (tailerrak, biltegiak, industria xeheak, zerbitzuak, etab.).

Industrialdea egin nahi bada lur batean, lur horrek behar du nahitaez industri edo zerbitzuetarako lurzoru urbanizagarriaren kalifikaziokoa izan, edo izaera hori behar du lortu, eta gainera bermatu behar da lur horiek udalarenak direla, eta horretarako desjabetzapen sistema erabiliko da, beharrezkoa bada.

Bestetik ere, lortu nahi da proiektu horiek gutxieneko baldintza eta ezaugarri batzuk betetzea, haien bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa bermatzeko, eta horregatik hain zuzen ere ezartzen da lurzatiaren eskariak gutxienez behar duela izan lurzati guztien % 30ekoa, beti ere proiektua egokitu beharko delarik egiazko eskarietara, eta behar diren ekarpen ekonomikoak jarriko dira enpresa eskatzaileak eta udal sustatzaileak elkartzeko asmoz, horrela bermatuko baita, Nafarroako Gobernuaren laguntzekin batera, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa.

Aurreikusten diren laguntzak, egokienak direla uste baita, funtsean hitzartutako maileguren edo kredituen korrituak berdintzeko adinako dirulaguntzak dira, haren puska nagusia lanen kostuaren % 50 izanen baita, edo % 60 industrialdea alditan egiten baldin bada, eta horrela, finantzazioaren gainerakoa enpresa eskatzaileen eta proiektua sustatu duen udalaren artean paratuko da.

Halaber, Foru Lege honetan ezarritako laguntzen arautegian sartzeko hasierako erabakiak bere baitan biltzen du sustapen proiektuaren osotasuna (proiektu teknikoak eta urbanizazio eta azpiegitura lanak), eta gero batean eginen da, egiazko kostuak ezagututa, onuren zehaztapen zehatza.

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege honen xedea da Nafarroako toki entitateendako dirulaguntzen irispidea, modua eta baldintzak arautzea, laguntza horiek herri mailako jarduera ekonomikoak paratzeko industrialdeen urbanizazio proiektuak egin eta aurrera eramateko.

2. artikulua. Herri mailako jarduera ekonomikoetarako industrialdeak: nolakotasunak eta xedea.

Foru Lege honen ondorioetarako, herri mailako jarduera ekonomikoetarako industrialdeak dira hiriguneak arintzeko asmoz egiten direnak, egungo jardueren lekualdaketa sustatuz, kokagune desegokian daudelako edo haien instalazioak haunditu nahi dituztelako. Halaber, aurreikusten da proiektu txikiak onartzeko, herri mailako bizimodu eta beharrek lotura haundiak dituztenak, alegia, tailerrak, biltegiak, industria xeheak eta horrelatsukoak, edo agian, kanpoko enpresen proiektu txikiak bertan hartzeko.

3. artikulua. Baldintzak.

Nafarroako toki entitateak dira dirulaguntza hauen helburu eta, beraz, onuradun izan daitezke, baldin eta jarduera ekonomikoetarako industrialdeak sustatu nahi badituzte, eta ondoko baldintzen barrenean badira:

a) Industrialdea jarri nahi den lurzorua hirilurzorua edota lurzoru urbanizagarria izatea, indarra duen Udal Planeamenduan industria nahiz zerbitzuetarako.

b) Lurzoruren bat ukitua suertatzen bada, indarrean dagoen planeamenduak ezartzen duen jarduketara sistema desjabetzapenarena izatea, dagoen exekuzio unitaterako, menpekotzak eta kanpo zerbitzuak barne, hori toki entitatearena ez bada.

c) Hasiera batez antolatu behar den azalera herrian dauden beharrek eta egiazko eskakizunekin bat etortzea, lurzatietatik heldu den azalera garbia 20.000 m²* izatea gutxi gorabehera.

Salbuespen gisa, azalera haundiagoak ere onar daitezke enpresa baten lekualdaketa edota handipena beharrezkoa denean eta jabeen aldetik lekualdaketa nahiz handipena egiteko konprometuz formala dagoenean.

d) Lurzati eskaria arrazoizkoa izatea, hain zuzen ere aurreikusitako urbanizazioaren lehenbiziko fasean, Industrialdeko lurzati garbien azalaren % 30 gutxienez hasiera batez okupatzeko adinakoa.

e) Toki entitateak konprometuzua hartzea jarduketaren ondorioz aterako diren lurzatiak ez dituela salduko, inolaz ere, kostua baino merkeago, dirulaguntzak eta aurreikusten diren hobari fiskalak kontutan hartu gabe.

f) Toki Administrazioiko Departamentuak oniritzia ematea, Industrialdea sustatzearen ondorioz

heldu diren gastuei aurre egiteko, toki entitateak ahalmen ekonomikoa nahikoa baduela azalduz.

4. artikulua. Onura aplikagarriak.

Nafarroako Gobernuaren laguntzak, Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuaren bidez, herri mailako jarduera ekonomikoetarako industrialdeak sustatzen dituzten Nafarroako toki entitateei emanen dizkienak, honakoak dira:

1.- % 70ko dirulaguntza, Exekuzio Unitatea erabat garatzeko behar diren proiektuen kosturako, beti ere Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeko 89, 98 eta 99. artikuluetan arautua dagoenaren arabera.

2.- Kredituak sor ditzakeen korrituak estaltzeko dirulaguntza, baldin eta haren puska nagusia Industrialdearen urbanizazio lanen kostuaren % 50 baldin bada eta, hala balitz, lurra erosteko kostua. Korritu-tasa izanen da Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuarekin Lankidetzaz Hitzarmena espreski sinatua duten entitate finantzieroekin hitzartutakoa bera, hamar urteko epean, eta horietako lehenbiziko biak gabealdikoak izanik eta puska nagusia hurrengo zortzietan amortizatuko delarik seihileko berdinetan ordainketak eginez.

Lanak zenbait alditan egiten direnean, dirulaguntza kalkulatu da lehenbiziko aldiaren kostuaren % 60aren gainean eta, hala balitz, lurra erosteko kostuaren gainean.

Industrialdearen lehenbiziko aldi hori egin beharko da beti ere haren azalera osoaren % 60 gainditu gabe.

3.- Industrialdeak sortzeko helburuz egindako lurzoru aldaketaren ondorioz toki entitateari aplikatzen zaion Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kuotaren % 95eko hobaria, baita toki entitateek bertan kokatzen diren enpresei egiten dizkieten gainekoak.

5. artikulua. Gaurko Udal Industrialdeetako azpiegituren eskasiak eta mentsak.

Arestiko artikuluko 1. eta 2. zenbakietan aipatutako laguntzak aplikatzen ahal dira egun kontsolidaturik dauden udal industrialdeetako azpiegitura eta urbanizazio mailako eskasiak eta mentsak estaltzeko, eta horrela balitz, erreferentziako mailaguenaren puska nagusia hobekuntzarako azpiegituren kostuaren % 40ra irits daiteke.

Industrialde kontsolidatuak izanen dira lurzatiaren azalera osoaren % 70 gutxienez industriek edota jarduera ekonomikoek hartua baldin bada.

6. artikulua. Deialdiak.

Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak urtero egingen du deialdia Foru Lege honetan aurreikusitako laguntzak emateko, eta horretarako eskatzen den dokumentazioa aurkezteko egunak eta epeak finkatuko ditu.

7. artikulua. Eskabideak eta dokumentazioa.

Toki entitate interesatuek, deialdian zehaztutako epearen barrenean, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, gutxienez:

– Ukitu behar diren lurren kalifikazioa egiaztatzen duen ziurtagiria eta toki entitatearen planeamenduan aurreikusita dagoen jarduketa sistema, eta bertan zehaztu beharko da lur horiek herrilurak diren ala ez.

– Dagoen lurzati-eskariari buruzko datuak eta eskatzaileen konpromezuaren zenbaterainokoa.

– Toki entitatearen erabakia, izan daitezkeen lurzatiak saltzeko konpromezua hartuko duela egiaztatzen duena, beti ere kostuaren zenbatekotik, jasotako dirulaguntzak kenduta, inolaz ere jeitsi gabe.

– Balorazio Txosten Teknikoa eta Bideragarritasun Aurreazterketa, eta bertan era arrazoitu eta zehaztuan ondoko inguruabarrak bildu behar dira: proiektuak esleitzeko eta idazketa egiteko aurreikusten diren epeak, hirigintzako tramiteak, behar diren lurra zein diren eta lanen esleipena eta exekuzioa, baita aurreikusten diren kostuak eta dirusarreraren eta ordainketen plana ere, finantzaketa iturriak zehaztuz.

– Hala balitz, urbanizazio lanen proiektua, behar bezala onetsita.

8. artikulua. Tramitazioa.

1.- Deialdiaren epeak bukatuta, espediente bakoitzean aurkeztutako dokumentazioa Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuko Zerbitzu Teknikoek begiratu dute, eskatutako baldintzak eta proiektuaren bideragarritasuna betetzen direla bermatzeko.

Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak dirulaguntzak emateari buruzko erabakia eman baino lehen, Toki Administrazioiko Departamentuari aginduzko txostena eskatu beharko zaio industrialdeak sortuko dituen obligazioei aurre egiteko eskatzaileak duen gaitasun ekonomikoari buruz. Delako txostena loteslea izanen da aurkako baldin bada.

Ondorio horietarako, gaitasun ekonomikoa finkatu ahal izateko ondoko zera hauek hartuko dira kontutan:

a) Eskabideak egin aurreko urteko kontuen itxieran toki entitateak izandako aurrezki garbia, hau da, ohiko dirusarreraren (1.etik 5. kapitulura) eta ohiko gastuen (1, 2, 3, 4 eta 9. kapituluak) arteko aldea.

b) Lurzatiak saltzeagatik izandako dirusarrerak, eta horiek zehaztuko dira hasierakoei urte bakoitzeko aurreikusitako salmenten % 10 gehituta.

c) Industrialdea finantzatzeko entitate finantzieroekin sinatu beharreko kredituetatik heldu diren ordainketek sortutakoak.

d) Toki entitateak egindako bestelako inbertsioetatik heldu diren konpromezuak.

2.- Lehentasun irizpideak laguntzak ematera koan:

Ekitaldi bakoitzeko Gastuen Aurrekontuan horretarako kontsignaturiko zenbatekoen arabera, Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak laguntzen ematea ebatziko du, ondoko hautapen irizpideei jarraikiz:

– Egun dauden jarduerak lekuz aldatu beharra, bai kokagune desegokian daudelako bai jarduera haunditu behar delako, baita jarduera berriak kokatzeko dauden eskariak ere.

– Lurzatiak eskatu dituztenen konpromezuaren zenbaterainokoa.

– Lurzatiaren egiazko eskariak duen eragina lanpostuak mantendu edota berriak sortzeko.

– Proiektua Foru Lege honetan ezarritako irizpideekin bat datorren ala ez, ondoko alor hauetan: proiektuak neurrietan edo haren aldi desberdinetan doikuntza egokiagoa, dauden egiazko eskakizunak, eta lurren, urbanizazio lanen eta azpiegituren kostuak jeistea.

– Proiektuaren garapenerako aurreikusitako epe laburragoak, hura lehenago exekutatzeko eta dirulaguntza hauen helburu diren fondoak arinago erabiltzeko.

– Eskualdeko industrialdeetako lurzatiak eskuratzeko beste aukerarik ez izatea.

9. artikulua. Laguntzak ematea eta ordaintzea.

1. Arestiko artikuluan aipatu diren txostenak ikusita, eta bertan zehazten diren irizpideekin bat etorritik, Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak erabakia hartuko du honako laguntzen araubidean deialdiaren bidez toki entitateek aurkeztutako proiektuak sartuko diren ala ez.

Sartzen badira behin-behinekoz sartuko dira eta 4. artikuluko 1. eta 2. idazatietan azaltzen

diren dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa zehaztuko da.

Aipatu dirulaguntzen zenbatekoa ondoko eran finkatuko da:

a) Hirigintzako dokumentuen eta proiektuen kostuaren % 70eko dirulaguntzari dagokionez, 7. artikuluan aipatu den dokumentaziorako aurreikusten den kostua hartuko da erreferentziatzat, beti ere Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak egiaztatuta.

b) Urbanizazio lanendako dirulaguntza hasiera batez emateko kontutan hartuko da 7. artikuluan aipatu den Balorazio Txosten Teknikoaren aurrekontua eta horri gehituko zaio, hala balitz, erositako lurren gutxi gorabeherako kostua, Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak aurretik ateratako balorazioaren arabera, eskualdeko industrialdeetan antzeko egoeratan izandako salneurriak ikusita.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu da erreferentziako kredituaren puska nagusiari, eta haren iraunaldian zehar, korritu-tasa aplikatuz, hain zuzen ere finantza entitateekin sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenean kalkulua egiteko unean indarra duen korritu-tasa aplikatuz.

2. Proiektuen idazketaren eta gainerako hirigintzako dokumentuen kostua behin ezagutuz gero, hasiera batez emandako dirulaguntzak behin betikoak izanen dira eta une horretantxe egingen dira behar diren doikuntzak, idazketaren kostuak hasieran aurreikusitakoak baino txikiagoak izan baldin badira.

Dirulaguntza horren ordainketa egingen da baldin eta idatzitako proiektu edota dokumentu bakoitza oso-osorik badago, eta aurretik Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuaren oniritzia badute.

3. Urbanizazio lanen dirulaguntza behin betikoa izanen da horiek esleitu ondoren, beti ere toki entitateak egiaztatzen baldin badu ondoko baldintzak bete dituela:

a) Ukitutako lur eta zerbitzuen eskuragarritasuna, lanen bideragarritasuna bermatzeko.

b) Lurzatiak eskatu dituztenen konpromezu formala, Industrialdean sortzen diren lurzatiaren % 30 gutxienez eskuratuko dituztela, hitzartutako salneurria, egutegia eta ordaintzeko modua zehaztuz.

Nolanahi ere den, lanen esleipenaren salneurria hasieran aurreikusitako kostua baino txikiagoa baldin bada, behar diren doikuntzak egingen dira dirulaguntza esleipenaren salneurriari egokitzeko.

Dirulaguntza honen ordainketa eginen da urbanizazio lanak hasi eta berehala.

10. artikulua. Emandako dirulaguntzak galdu edo murriztea, ez-betetze kasuan.

Onuradun suertatzen diren toki entitateek Industri, Merkatariza eta Turismo Departamentuan aurkeztu beharko dute, lanak bukatu ondoren, haien burutzea eta kostua egiaztatzen dituen dokumentazioa.

Aipatu Departamentuak edozein unetan eska dezake egoki juzkatzen dituen argibideak, lanen burutzeari buruz nahiz Industrialdeko lurzatiaren salmentei buruz.

Dirulaguntzak emateko ebazpenetan finkatutako baldintzak erabat nahiz hein batean ez bete-tzeak, edo Foru Lege honetan eskatutako baldin-tzen bat ez betetzeak, berekin dakar emandako dirulaguntzak galtzea edo murriztea.

Horrelako ebazpenik bada, arrazoiak eman beharko dira eta bereziki dagokion entitateari behar bezala jakinarazi.

Xedapen Iragankorra

Toki entitateak Foru Lege honetan ezarritako onuradun izan daitezke, hain zuzen ere 1993ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 30eko 9/1993 Foru Legeak indarra hartu ondotik hasiak baldin bazituzten industrieta-rako udal lurzorua sustatzeko ekintzak eta Foru Lege honek indarra hartu aurretik proiektu eta lanetan inbertsioak eginak baldin bazituzten.

Aipatu ekintzek bete beharko dituzte Foru Lege honetan ezarritako beharkizun eta baldin-tzak eta horretarako egiten diren deialdietara agertu beharko dute.

Azken Xedapenak

Lehenbizikoa. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari aurrekontuetan behar adina aldaketa egiteko "Proiektuen kostuen % 70eraino-ko dirulaguntzak" (98006-2 lerroa) izeneko 81130-7600-5351 kontusailean, handitzeko ahalmena eman baitzaio, Foru Lege hau aplikatzen sortzen ahal diren gastuei, ekitaldi honen barrenean beti ere, behar diren zenbatekoekin hornitzeko.

Bigarrena. 1997ko eta hurrengo aurrekontuetan kontsignatuko dira pagamendu-konpromezuak, hain zuzen ere Lege honen neurriak aplikatzen heldu daitezkeenak.

Hirugarrena. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau betetzeko eta aurrera eramateko behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Laugarrena. Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunean berean.

Xedapen Indargabetzailea

Indarrrik gabe gelditzen da Indutri Politikarako eta Inbertsioa eta Enplegua Sustatzeko Koiuntura-neurri buruzko Arauko 14. artikulua.

F Sails:
GALDERAK

Tuterako saihsbidea egiteko N-232 errepidea destolesteari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko urriaren 14an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako saihsbidea egiteko N-232 errepidea destolesteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko urriaren 15a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida Parlamentari Taldeko kidea den Martín Landa Marco Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamen-

duak ezarritakoaren babesean, ondorengo galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten:

1996ko Nafarroako Aurrekontuetan, saihsbi-deetarako kontusailak 100 milioiko gehiagotzea eduki zuen, EB-IU Parlamentari Taldeak hala proposaturik, urteko azken hiruhilekoan (urrian), N-232 destoletzeari ekiteko, hain zuzen ere Tuteratik pasatzen denean saihsbide bat egiteko.

Izan diren gertaerak izan eta gero, Gobernu aldaketa ere ekarri dutenak, ondorengo hau jakin nahi da:

Gobernuak aipatu aurrekontu-konpromezuari eutsiko ote dion, eta aurtengo urrian N-232 errepidean egin beharreko obrak hasiko ote dituen.

Iruñean, 1996ko urriaren 8a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Iparreko Autobian antzemandako arazoei buruzko buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko urriaren 14an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Iparreko Autobian antzemandako arazoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko urriaren 15a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida Parlamentari Taldeko kidea den Martín Landa Marco

Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondorengo galdera egiten du idatziz erantzun diezaioten:

